

BOE / EGOITZA ETA WEBGUNE ELEKTRONIKOA

Bilboko Portuko Agintaritzaren Administrazio Kontseiluaren ebazpena, zeinaren bitartez Bilboko Portuan ontzien portuko gidari izateko lizentzia ematea onetsi den, Prácticos del Puerto y Ría de Bilbao SL enpresaren alde.

Bilboko Portuko Agintaritzaren Administrazio Kontseiluak 2018ko apirilaren 19an egindako bileran, besteak beste, aho batez hartu zen honako erabaki hau:

- Corporación de Prácticos del Puerto y Ría de Bilbao SL enpresari lizentzia ematea Bilboko Portuan ontzien portuko gidari-zerbitzua emateko 10 urteko epean eta 2018ko ekainaren 1etik aurrera, irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bitartez onetsitako Estatuko Portuei eta Merkataritzako Nabigazioari buruzko Legearen testu bateginarekin bat etorritz. Horren aurka egiten ez duen orori dagokionez, Bilboko Portuan aipatutako portuko zerbitzua arautzen duen eta indarrean dagoen Baldintza Berezien Plegua aplikatuko zaio, Bilboko Portuko Agintaritzaren Administrazio Kontseiluak 2008ko otsailaren 14an onetsi zuena, lizentziaren titularrak onetsiko den zerbitzurako Baldintza Berezien Plegu berrira egokitu beharra barne.

Jakinarazten da dagozkion ondorioak izan ditzan, Estatuko Portuei eta Merkataritzako Nabigazioari buruzko Legearen testu bategina onetsi duen irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 115.3. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.

Santurtzi, 2018ko apirilaren 19a. Lehendakaria, Asier Atutxa Zalduegi. Idazkaria, Juan Carlos Verdeal Pinto.

Lehendakaria
Asier Atutxa Zalduegi

Idazkaria
Juan Carlos Verdeal Pinto